



DIRU ITURRIAK

Gure enpresan gure diru-iturri bakarra produktuen salmenta izango da. Argi dago, gure ideia aurrera eramateko hasieran inbertitu beharreko dirua irabaziko duguna baino baxuagoa izango dela, baina produktua ezagunagoa egiten den heinean salmentak gora egingo dute.

Hasieran, taldekide bakoitzak 10.000€ inbertituko ditugu, beraz 30.000€ izango ditugu denera. Gainera, METXAK diru laguntza bat ere emango digu, 100.000€ zehazki. Beraz, gure hasierako diru sarrerak 130.000€-koak izango dira.

Esan bezala, gure irabazi iturri nagusia ogiaren eta jogurtaren salmenta izango da. Alde batetik, Euskal Herrian zehar 21 dendetan eskainiko da gure produktua, egindako mapan ikusi daitekeen bezala ([DENDAK](#)). Beraz, jogurt bakoitza 0,9€tan eta ogi bakoitza 3,15€tan salduko dugula kontuan izanda eta denda bakoitzak hilean 270 ogi eta 510 jogur erosiko dizkigutela batez beste estimatu ondoren, hilean 27.500€ faturatuko ditugu.

Hau ikusita, oso garrantzitsua da jakitea zenbat ekoiztu eta saldu beharko dugun irabaziaz izaten asteko. Gure enpresaren kostu finkoak, hilabetero 13.225€, izango direla kontuan izanda, 8655 jogurt eta 4567 ogi ekoiztu eta saldu beharko ditugu gure enpresak irabaziaz edukitzen hasteko.

Urteko ekoizpen eta salmenten aurreikuspen bat egin ondoren, hilabetean 27.500€ faturatuko ditugula aurreikusi dugu, beraz, gure diru sarrera totalen %65a ogien salmentaren bidez lortuko dugu eta %35a jogurtak salduz.

Kostu finkoak eta aldakorrak kontuan izanda, aurreikusten dugu hilabetean 2720,28€-ko irabazi garbiak izango ditugula eta urte bukaeran BITXOLABEL-en emaitza ekonomikoa 32.643,36€-koa izango da. Hau ondoren gu hiruron artean banatuko dugu.



Hala ere, urtez urte enpresak arrakasta izan duela ikusten badugu produktu berriak merkaturatuko ditugu, eta Espainia mailan saltzea izango litzake gure helburu nagusia.